



XXI. mendeko Akordio Soziala

«Akordio historikoa» sinatu dute Euskal Herriko 22 erakundek

Unesco izan da egitasmo estrategikoari hasiera eman dion ekitaldiko burua

■ EUSKAL HERRI osoko 22 erakundek euskararen aldeko akordio soziala sinatu zuten atzo Iruñean. Unescoko Felix Martik presiditu zuen ekitaldia, eta irakaskuntza, kultura, kirola eta lan munduko elkarte eta erakundeak izan ziren ordezkatuak. Guztiek azpimarratu zuten atzoko «egun historikoa» izan zela euskaren geroa sendotzeko. Hala ere, Kontseiluko kideek azpimarratu zuten ondoren etorriko den egitasmo strategi-

koak eta apurka akordiora bilduko diren guztiek emango diotela esanahia prozesuari. Plan Estrategikoa lurralde bako-

tzaren errealitate soziolinguistikoari egokitzeko lantaldeak lurraldeka antolatuko dira. Finantziazioa ere hitzartu zen atzo,

eta iturri nagusia euskararen aldeko lan ordua izango da. Era berean, prozesua instituzioen egitasmoekin uztartzeko borondate sendoa dutela azpimarratu zuten. Unescok Felix Martiren ahotik azpimarratu du prozesua «eredugarria» dela hizkuntzen defentsan diharduten guztientzat. **12-15**

Felix Marti, UNESCOKO ORDEZKARIA



«Akordio hau eredugarria da hizkuntza gutxituak salbatzeko lanean ari direnetzat»



Akordioaren puntuak

- 1 Euskararen garapen osoa eta normalizazioa lortzeko konpromisoa.
- 2 Prozesua Plan Estrategikoaren bitartez burutzeko egitasmoa.
- 3 Euskal Herriko gizarte eragile guztiei akordiora biltzeko proposamena.

Gizarte, kultura, kirol eta lan munduko 22 sinatzaileak eta Euskararen Kontseiluko kideak atzo Iruñean izan zen sinadura ekitaldian.

OSKAR MONTERO

Indultua 'Marey kasuko' zigortuentzat

Vera eta Barrionuevo gaur aterako dira kalera

■ *Gobernuak indultu partziala eman die, eta hirugarren gradu mugatuan dira orain kondenatuak*

MINISTROEN KONTSEILUAK Marey kasuko hamar kondenaturi, tartean Rafael Vera eta Jose Barrionuevi, indultu partziala ematea erabaki zuen atzo, eta, ordu gutxira hirugarren gradu mugatua eman zieten Espetxe Erakundeek. Barrionuevo eta Vera-gaur aterako dira kalera, Gabonetako baimenarekin. Indultuak erreakzio uga-

ri sortu zituen. HBk zorrotz kritikatu zuen erabakia: «Gobernuak neurtzeko bi modu ditu: gerra zikinean parte hartu zutenak kalera aterako dira eta bake proposamen bat zabaldu zutenak kartzelan segituko dute». EAJk «eskandalutzat» jo zuen erabakia. EAK eta IUK ere lotsagarri iritzi diote erabakiari. → 5-6



EAJk eta EAK itxi dute Jaurlaritzako Ituna, eta orain EHren babesa segurtatzen saiatuko dira

Bi alderdiek Juan Jose Ibarretxe aurkeztu dute lehendakari izateko → 7

kirola

■ **Espainiako Pilota Federazioak debekatu egin du Euskadiko Txapelketa EAetik kanpo jokatzea**

Erabakiak Espainiako eta Euskadiko Pilota federazioen arteko afera leher dezake, Espainiako Federazioko kide izaten segi nahi duen adierazteko eskatu baitiote Euskadikoari. → 30

politika

■ **Algecirasko kartzelan kateatu da Olentzero, presoen eskubideen alde** → 8

gizartea

■ **'Marero' ontziko kideak bizirik aurkitzeko esperantza gutxi Pasaian** → 16

nazioartea

■ **Blairren gobernuak bi ministrok dimititu egin dute, legez kanpoko mailegu bategatik** → 24

barkatu, ama

Elkarrizketa
→ **Zaldi Eroa, gure gizartearen voyeur fina**